

XEDAPEN OROKORRAK

HERRIZAINGO, JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

4221

AGINDUA, 2012ko irailaren 14koa, Herrizaingo, Justizia eta Herri Administrazioko sailburuarena, Herrizaingo, Justizia eta Herri Administrazio Sailaren antolamenduari eta funtzionamenduari buruzkoa.

Lehendakariaren abuztuaren 2ko 13/2012 Dekretuaren bidez, Herrizaingo, Justizia eta Herri Administrazio sail berria sortu da. Aipatu dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko sailak, sortu, ezabatu eta aldatzen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen dekretua laugarren aldiz aldatu du.

Dekretu horrek xedatutakoaren arabera, Herrizaingo, Justizia eta Herri Administrazio Sailak Lehendakariaren maiatzaren 8ko 4/2009 Dekretuko 6. eta 9. artikuluetan jasotako Herrizaingo Sailaren eta Justizia eta Herri Administrazio Sailaren egitekoak eta jardun-arloak bideratuko ditu.

Dekretu horretan esaten denez, hauteskundeak hurbil daudela kontuan hartuta, egokia da sailen berrantolaketak Jaurlaritzaren eginkizun politiko-administratiboen jarraipena berma dezan, etenik eragin gabe, eta aurreko administrazio-antolaketatik dekretuan onartzen den administrazio-antolaketarako bidea zuzen dezan.

Halaber, Herrizaingo, Justizia eta Herri Administrazio Saileko egitura organikoa onartzen ez den bitartean, eragindako sailen eguneko egiturak mantenduko dira aipatu dekretuari kalterik egiten ez dion heinean.

Dena den, araua argi gera dadin, komeni da, irizpide trantsizio-aldi honetan, bi funtzionamendulor horietako kudeaketaren eta administrazio-izapidetza inguruko hainbat alderdi are gehiago argituko dituzten antolakuntza-irizpideak ezartzea.

Horregatik guztiagatik, Lehendakariaren irailaren 2ko 16/2012 Dekretuak ematen dizkidan ahalmenez baliatuz, honako hau

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.– Ezabatu berri diren Herrizaingo Saila eta Justizia eta Herri Administrazio Saila osatzen duten organoek, Herrizaingo Sailaren egitura organikoa eta funtzionalari buruzko abuztuaren 28ko 471/2009 Dekretuan eta Justizia eta Herri Administrazio Sailaren egitura organikoa eta funtzionalari buruzko abuztuaren 28ko 479/2009 Dekretuan aurreikusitako eginkizunak burutzen jarraituko dute, dekretu horietan ezarritakoaren arabera.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Herrizaingo, Justizia eta Herri Administrazio Saileko egitura organikoa onartzen ez den bitartean, Herrizaingo eta Justizia eta Herri Administrazio sailei dagozkien eremuetan ezarritako eskumen-eskuordetzeak, eginkizun-eskuordetzeak eta kudeatzeko gomendioak bere horretan mantenduko dira.

2012ko irailaren 21a, ostirala

AZKEN XEDAPENA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko irailaren 14a.

Herrizaingo, Justizia eta Herri Administrazioiko sailburua,
IDOIA MENDIA CUEVA.